



Araudia

- Segalari guztiek, zozketa bukatu ondoren, antolakuntzak zehaztutako denbora bat izango dute egokitu zaien saila ikuskatzeko.
- Segalari bakoitzak sega bakarra erabili beharko du.
- Sega bera edo kirtena hondatuz gero, lana amaitzean epaileek ikusiko dute beste aukera bat eman ala ez.
- Norberak zorrotu beharko du edo, kasu bakoitzean, antolakuntzak adieraziko du bestela nola egin.
- Segalariak laguntzaile bakarra izango du baina honek aholkuak bakarrik eman ditzake. Ez du, beraz, sega zorrotzerik ez eta ukitzerik izango. Era berean, belarrak ere ezin izango du ukitu.
- Antolakuntzak segalariak zorrotzailea behar duela erabakitzen badu, laguntzailea bera izango da zorrotzailea eta ez beste inor.
- Belardian uzta edo landare ezohikoren bat, lurra, harria, egurra edota horrelakorik balego, kendu baino lehen, epaileari galdetu beharko zaio.
- Lanean hasi aurretik sega lurrean utzi beharko da, eskuekin ukitu gabe.
- Belarra edozein eratarik ebaki daiteke kontra-mailan izan ezik, epaileek bestelakorik adierazten ez badute behintzat.
- Baloratzerakoan kontutan hartuko da: Belarra ahalik eta txukunen eta denbora laburrenean ebakitzea. Txukun ebakitzea: belarra berdinean, zeharo, mailapean arrastorik utzi gabe, sega kolpe bakoitzaren arrastoak nabarmendu gabe, sail bakoitzeko belar izpi guztiak ebakita uztea.
- Mozketaren balorazioa:

Sail bakoitza moztean hasiko da epaileen puntuaketa lana. Horretarako irizpide hauek jarraituko dira:

- Mailaren txukuntasuna: 0-4 bitartekoa, 0 oso zuzen izango delarik (0,0'5, 1, 1'5, 2, 2'5, 3, 3'5, 4).



Puntu bakoitzak 8 segundoko penalizazioa izango du eta mozketaren balorazioa ondoko biderketaren bidez neurtuko da:

$$\text{EMAITZA}_{\text{MOZKETA}} = \text{EMAITZA}_{\text{TXUKUNTASUNA}} \times 8 \text{ seg}$$

Behin mozketa baloratu delarik, emaitza horri igarotako denbora batuko zaio:

$$\text{EMAITZA}_{\text{GUZTIRA}} = \text{DENBORA} + \text{EMAITZA}_{\text{MOZKETA}}$$

Honela, emaitzarik baxuena duen segalaria suertatuko da garaile eta hurrenez hurren gainerakoak.

- Lana amaitutakoan, segalariak sega utzi gabe eskua jaso beharko du, kronometrizaileek kronometroa gera dezaten.
- Segalariak berak erretiratu beharko du sega, berehala, eta ez beste inork, bere lana amaitutakoan.
- Arau guzti hauen arabera baloratuko da segalarien jarduna.
- Bukaerako sailkapeneko emaitzan berdinketarik balego:
 - Denborarik laburrenean ebaki duenari emango zaio lehentasuna.
 - Denbora eta penalizazioetan ere berdinketa balego berriz, gazteenari.

Arau hausterik badago, epaileen puntuaketan zigorra eragingo du.